

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Hiri Mantenimendua  
Mantenimiento Urbano

AN



## ASTE NAGUSIAK IAZ BAINO HONDAKIN GUTXIAGO UTZI DITU

Aste Nagusia amaituta, garbiketa-zerbitzuek jaietako astean zehar kendutako hondakinen bolumena zertxobait jaitsi dela ikusi dute.

"112 tona hondakin bildu dira bide publikoan, hau da, iaz baino 4 tona eta erdi hondakin gutxiago, % 3,77 gutxiago", adierazi du Carlos García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak. "Kendutako pisua 112.220 kilokoa da guztira, 2022ko Aste Nagusian 116.620 kilo hondakin kendu zirenean".

Piraten eremuan eta Abordatzean ere, jasotako egurrak % 12,63 hazi dira aurten, 6.600 kilo kenduta, eta iaz 5.860 kilo kendu ziren. Plastikoeak ere nabarmen egin dute behera, % 12,12, eta 580 kilo kendu dituzte; iaz, berriz, 660 kilo.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



Hondartzen hondakinak % 1,64 hazi dira Ondarretan eta Kontxan, 9.280 kilo guztira, eta iaz 9.130 kilo. Zurriolan hazkundera izugarria izan da, baina alga asko daudelako da, eta alga horiek pisu handia dute, eta, jakina, ezin dira bereizi garbiketan. Hori dela eta, datuak nahasgarriak izan daitezke; izan ere, igoera % 72koa da, 12.120 kilokoa, 2022ko Aste Nagusiko 7.040 kiloen aldean, baina antzeko kopurua kalkulatzen da, algak kenduz gero.

Gainerakoan, pixa eta okadak antzeman eta garbitu dituzte hiriko hainbat tokitan. Kontuan izan behar da egunero garbiketa berezia egiten dela Lastako kaian. Aste Nagusian, guztira, desodorizatzaile-bakteriziden 10 litroko 40 bidoi erabili dira egoera horiek gertatu ohi diren eremuetan.

Pankartak ere ugaritu egin dira, batez ere Alde Zaharrean, goizean goiz kentzen baitzituzten.

Su artifizialen ondoren, Kontxako baranda garbitzen zuten, suen edo leherketen markak kentzeko.

Garbiketa-dispositiboan 128 langilek parte hartu dute, kamioi-gidarien eta garbiketarako erabilitako makinen, peioen eta zerbitzu berezietako langileen artean. Gainera, mota guztietako 56 ibilgailu erabili dira garbiketarako.